

## **AURKIBIDEA**

<b>Urtarrilaren 16an, URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA.....</b>	<b>4</b>
<b>Urtarrilaren 23an, URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA .....</b>	<b>11</b>
<b>Urtarrilaren 30ean, URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA.....</b>	<b>19</b>
<b>Otsailaren 6an, URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA .....</b>	<b>26</b>
<b>Otsailaren 13an, URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA .....</b>	<b>35</b>
<b>Otsailaren 20an, URTEAN ZEHARREKO VII. IGANDEA.....</b>	<b>39</b>
<b>Otsailaren 27, URTEAN ZEHARREKO VIII. IGANDEA .....</b>	<b>46</b>

Urtarrilaren 16an  
**URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA (C)**

*Haur Misiolarien jardunaldia*

**Agurra**

Gure onerako gizakien aurrean agertu zen Kristo izan bedi zuekin.

**Sarrerako Oharpena**

Eguberritan ospatu berri dugun misterioaren argiak oraindik distira egiten digula, gaurko igande honetan «**Munduaren argi!**» aitortzen dugu. Kristauak, familian, lanean nahiz dabilen tokian, eredu ona eman behar du bere egintzekin; besteak Jesusi jarraitzera adoretuko dituen eta zoriontsu izaten lagunduko dien argi izanez.

Haur Misiolarien Jardunaldia dugu gaur; munduko haurrak elkar laguntzera eragiten dituen Ekintza da hau. Haurrak, misiolari izatera deituak dira. Eska dezagun lurreko haur guztien alde, bereziki gure otoitzaren beharrea direnen alde.

**Damu-otoitza**

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

## Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa, zeure ardurapean dituzu zeru-lurrak; entzun bihotz onez zeure herriaren otoitza eta eman zeure bakea gure egunotan. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Zorionsu ez dena, harrizko ontzi agor bat bezalako da. Jesu Kristogan bere poza aurkitzen duena berriz, ardo gozodun iturri ugaria bihurtzen da, guztien pozerako, norbere zorionerako eta Jainkoaren aintzarako.

## Lehenengo irakurgaia (Is 62, 1-5)

Isaias Profetaren liburutik

Sionen maitasunez ez naiz isilduko, Jerusalem maitasunez ez naiz geldi egongo; haren garaipena goiz-argia bezala agertu arte, haren salbamenak zuziak bezala distiratu arte.

Eta ikusiko dute herriek zure garaipena, errege guztiek zure ospea; izen berria ezarriko dizute, Jaunak berak emana. Koroa eder izango zara Jaunaren eskuan, errege-diadema zeure Jainkoaren eskuan.

Ez dizute berriz deituko «Zapuztua», ezta zure lurraldeari ere «Hondatua». «Ene atsegina» deituko dizute zuri, eta «Emazte» zure lurraldeari. Atsegin izango baitu zugar Jaunak eta emaztetzat hartuko du zure lurraldea.

Mutila neskaxarekin ezkontzen den bezala, hala ezkonduko da zurekin zure eraikitzailea; senarra emaztearekin pozten den bezala, hala poztuko da zurekin Jainkoa.

**Erantzun-salmoa** (*Sal* 96 [95], 1-2a. 2b-4. 7-8a. 9-10ac)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -  
ak biz - ten di - tu.

- ∞. Kanta Jaunari kantu **berria**,  
kanta Jaunari, lur **osoa**,  
kanta Jaunari, bedeinkatu haren **izena**! ∞.
- ∞. Hots egin egunez egun salbatzaille dela.  
Zabaldu haren ospea nazioetan,  
haren mirariak herri guztietan. ∞.
- ∞. Goretsi Jauna, munduko **herriok**,  
goretsi Jaunaren ospea eta **indarra**,  
goretsi Jaunaren izen **ospetsua**! ∞.
- ∞. Gurtu Jauna, hura santutasunez **agertzean**,  
ikara zaitez, lur osoa, haren **aurrean**.  
Esazue nazioetan: «Errege da Jauna,  
herriak zuzenbidez **ditu** epaitzen». ∞.

**Bigarren irakurgai** (*1 Ko* 12, 4-11)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua;  
era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak  
eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten

duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak.

Honela, bati jakinduriaz hitz egitea ematen dio Jainkoak Espirituaren bidez; beste bati, Espiritu beraren arabera, ezagueraz hitz egitea; bati, Espiritu beraren egitez, sinesmen-dohaina ematen dio; beste bati, Espiritu beraren egitez, sendaketak egiteko dohaina; bati, mirariak egiteko ahalmena; beste bati, Jainkoaren izenean hitz egitea; bati espiritu faltsua eta benetakoa bereiztea; beste bati, hizketa arrotzez mintzatzea, eta beste bati, hizketa horren esanahia adieraztea.

Hori guztia, ordea, Espiritu batek berak egiten du, bere dohainak nahi duen bezala bakoitzari banatuz.

### Aleluia (Ik. 2 Ts 2, 14)



℣. Honetarako deitu gaitu Jainkoak Berri Onaren bidez, Jesu Kristo gure Jaunaren aintza eskuratzeko. ℞.

### Ebanjelioa (Jn 2, 1-12)

### Homiliarako argibideak

ORDUA AURRERATU

*Irakurgaiak*

Jaunaren bataioa eta haren misioaren unibertsaltasuna ospatu ondoren, Kanako ezteietan gertatu zen Jesusen agerpena gogoratzen dugu gaur. Bataioa iragarpena da, Kanako gertakaria, hasiera. Kanan hasitako Jesusen misioaren edukia eta emaitza aurkezten dizkigu Paulok: Espiritu Santuaren dohaina, Jesusek gu eraberritzeko eta gure bizitza alaitzeko darabilen ardo berria da. Lehenengo irakurgaiak berriz Jerusalem berreraikitzea iragartzen duten poemetatik hartua dago, gizadi osoaren salbamenaren iragarpena da, Jesusek jada Betleemen hasitako salbamina.

### *Mezua*

Lehenengo ideia: Jesus, bere misioan erabat murgildua bizi da. Horregatik harrigarria da erantzuna: «Ez da iritsi nire ordua». Bigarren ideia: Mariak errespetatu egiten du semearen autonomia eta ekimena: «egizue berak esandakoa». Fedearen eta konfiantzaren eredu da. Mariaren fedea, fedea distiratzten du eta horrexegatik prestatzen du munduan Jesusek duen egitekoa. Horra hirugarren ikasbidea: Mariaren fedea da Elizak gordea duen fedearen altxorra. Berak eusten gaitu eta berak garamatza konfiantzaz betea eta esanekoa den fedearen barne-ibilbidean. Bere fedea eusten du gurea. Honela prestatzen gaitu Jesusen egintza onartzeko eta Espiritu Santuari harrera egiteko. Bere hitza fedez onartzen dugunean gudan egiten dituen miragarriak ikustean gehiago sinesten dute ikasleek Jesusengan. Maria da Kristoren egunsentia, gure fedea eutsiz eta hauspotuz Kristoren «ordua» gerturatzten du gure bizitzara.

### *Bizitzarako iradokizunak*

Iradozikun praktikoa eta garrantzitsua: Maria maitatzea bere fedea geureganatzea da, Elizaren jatorrizko eta sustraiko fedea baita; honela onartzen eta betetzen dugu Jesusen hitza. Mariak, «sinetsi zuenak... Jesusen hitzak gordetzen zituen bere bihotzean». Maria da Elizaren altxor mistikoa, Jesu Kristorekin bat egitera garamatzen

barne-bidea, hitza entzuten eta obedientziaz eta maitasunez betetzen duen Elizaren irudi argia. Ikas dezagun Eukaristia Mariaren espirtu beraz lagunduta eta eraginda bizitzen. Jesusen presentziak, fedez onartua denean, bizitza erreala eraldatzen du, jende apalaren bizitza, familiartekoen eta lagunen pozak eta alaitasunak eraldatzen ditu. Gure bizitzan gertutasuna eta egiazko maitasuna eta benetako alaitasuna dugunean, Jainkoaren dohaina gugan ari da; espirtuaren ardoak aurreratu egiten digu zeruan betiko izango dugun otordua.

Hortik datorkigu Jesusekin batera «Munduaren argi!» izateko indarra. Ikas dezagula Jesus gure bizitzaren erdigune bihurtzen eta Haur Misiolarien Jardunaldiak gogoratzen digun bezala jabetu gaitezela zein misio ederrera bidaliak garen.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok egiogun otoitz Jaunari, eta eska diezaiogun entzun ditzala errukiz gure otoitzak:

- Elizaren alde, bakean eta batasunean biziz, Jainkoaren ezaugarri izan dadin mundu zabalean. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriko eta herrialde guztietako agintarien alde, Jainko gure Jaunak argi ditzan haien pentsamenduak, egiazko bakeranzko erabakiak har ditzaten beti. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bihotz-berritze bidean direnen alde eta bataioa hartzeko prestatzen direnen alde, Jainkoak bere errukiaren atea zabal diezazkien eta Kristoren bizi berrian parte eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Lurralde guztietako hauren alde: Jesusen berri ona aurkitzeko zoria izan dezaten, aurkituta leial bizi daitezen, eta leial izanik Haren lagun eta testigu ager daitezen guztiontzat.

—Hemen gurekin ez dauden etxeko eta adiskideen alde, Jainkoak entzun ditzan haien otoitzak ere eta bere asmoetan lagun diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

Zure esku, Aita, gure gogo eta eskariak. Egizu, gure jokabidea bat etor dadila eskatu dugunarekin. Sutu gudan zure Erreinua gauzatzeko gogoia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Diru-bilketa egitean**

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean mundu osoko haur misiolarien eguna dela gogoratuz.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Egizu, Jauna, parte har dezagula sarri sakramentu honetan, gure erospena gertaberritzen baita Jaunaren opariaren oroigarri hau ospatzen dugun bakoitzean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Isuri gugana, Jauna, zeure maitasun-espirtua, bizia ematen duen ogi zerutar bat beraz janaritu gaituzunok bat izan gaitezen bihotzez maitasunean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.



Urtarrilaren 23an  
**URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA (C)**

### **Agurra**

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

### **Sarrerako Oharpena**

Kristoren gorputza osatzen dugunon, Eliztarron batasuna ospatzera biltzen gara Eukaristian. Jainkoaren Hitza eta biziaren Ogia geureganatuz egiten dugu hori. Aldarrikatzen dugun Hitza geuregan betetzen saiatuz. Kristauen batasunerako otoitz-astean gaude hain zuzen: otoitz egin dezagun Bataio bera jaso genuen Kristoren jarraitzaile guztiok, egun batean Eukaristiako mahai berean biltzeko grazia izan dezagun, batasunean eta bakean.

### **Damu-otoitza**

Jesu Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzezela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

## Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa, zuzendu zeure gogara gure jarduera, zure Seme maitearen izenean fruitu on ugari eman dezagun. Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̄*. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Erbestean igarotako garai luzearen ondoren, Israel herria berriro ere bere sustraietara itzuli zen. Jainkoaren borondatea -Liburu santuan azaldua- izan zen herriaren oinarria. Gaur ere badugu, Jesusen erara, Ebanjelioan errotu eta Jainkoaren nahia betetzeko beharra. Baita Bere indarra ere.

## Lehenengo irakurgaia (Ne 8, 2-4a. 5-6. 8-10)

Nehemias liburutik

Egun haietan, Esdras apaizak Moisesen legearen liburua ekarri zuen, gizon-emakume eta ezaguera zuten guztien batzarraren aurrera. Zazpigarren hilaren lehen-eguna zen. Eta goizetik eguerdia arte Uratearen aurreko plazan batzar osoari irakurtzen aritu zitzaion; herri osoa adi-adi zegoen legearen liburua entzuten.

Esdras lege-maisua, hartarako egina zuten oholtza gainean zegoen zutik. Esdrasek liburua zabaldu zuen herri osoaren aurrean, bera denen gainetik jarria baitzegoen; liburua zabaltzeaz batera, herri osoa zutitu zen. Gero, Esdrasek Jauna Jainko handia goretsi zuen, eta herriak, eskuak jasorik, «Amen, amen» erantzun zuen; ondoren, makurtu eta lurreraino ahuspeztuz, Jainkoa gurtu zuten.

Lebitarrek argi eta garbi irakurtzen zuten Jainkoaren legea, esanahia azalduz, herriak ulertzeko eran.

Herri osoak negarrari eman zion, legearen hitzak entzutean. Orduan, Nehemias gobernariak, Esdras apaiz eta lege-maisuak eta irakasten ari ziren lebitarrek esan zioten herriari: «Gaurko eguna Jaunari, geure Jainkoari, sagaratua dugu; beraz, ez egon triste, ez negar egin».

Gainera, esan zieten: «Zoazte eta jan haragi guria, edan ardo gozoa, eta bidali janaria ezer prestaturik ez dutenei ere, egun hau Jaunari sagaratua baita. Ez atsekabetu, Jaunaren poza baita zuen indarra».

### Erantzun-salmoa (Sal 19 [18], 8-9. 10 eta 15)



∞. Jaunaren legea bikain, barrena arnasberritzen du;  
Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur egiten du,  
Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren **poz**garri;  
Jaunaren agindua distiratsu, begien **argi**garri. ∞.

∞. Jaunaganako begirunea garbi, betiko **irauten** du.  
Jaunaren erabakiak egiazko, den-den**ak** bidezko.  
Har itzazu atseginez nire hitz eta **gog**etak,  
Jauna, ene harkaitz, ene **ask**atzaile. ∞.

### Bigarren irakurgaia (1 Ko 12, 12-30 edota, laburrago 1 Ko 12, 12-14. 27)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Gorputzak, bat izanik ere, atal asko ditu; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza

bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik. [Oinak esango balu: «Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Eta belarriak esango balu: «Begia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dena belarri balitz, non usaimena?

Baina Jainkoak bere tokia jarri zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Denak atal bat balira, zer-nolakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, ordea, bat bakarra. Begiak ez diezaioke eskuari esan: «Ez dut zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dut zuen beharrik».

Gehiago oraindik, makalenak diruditen gorputz-atalak beharrezkoenak dira, eta duintasunik gutxieneko iruditzen zaizkigunak itzal eta begirune handiagoz inguratzen eta zaintzen ditugu; izan ere, berez ohoragarri direnek ez dute arreta horien beharrik. Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez ohore gabeko ziren atalei begirune handiagoa eman zien. Horrela, ez dago zatiketarik gorputzean, eta atal guztiak bata besteaz arduratzen dira. Atal batek min duenean, min dute gainerako atal guztiek harekin; eta, atal bat ohoratua denean, poza dute gainerako guztiek harekin.]

Zuek, beraz, Kristoren gorputza zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. [Eliz elkartean bakoitzari bere tokia ezarri dio Jainkoak: lehenengo apostoluak jarri ditu, bigarren profetak, hirugarren irakasleak, ondoren mirarigileak, gero sendatzeko edo

behartsuei laguntzeko dohaina, nahiz elkarte gidatzeko edota hizketa arrotzez mintzatzeko dohaina dutenak. Denak apostolu ote dira? Denak profeta? Denak irakasle? Denak mirarigile? Denak ote dute sendatzeko dohaina? Denak mintzo ote dira hizketa arrotzez? Denak ote dira hizketa arrotzen interpretari?]

### Aleluia (Ik. Lk 4, 18)



∇. Behartsuei Berri Ona ematera bidali **nau** Jaunak, gatibuei askatasuna hots **egitera**. √.

### Ebanjelioa (Lk 1, 1-4; 4, 14-21)

#### Homiliarako argibideak

GAUR ERE BETETZEN DA

#### Irakurgaiak

Nehemiasen liburutik hartutako lehenengo irakurgaiak, Israelgo herriaren eta haren elkarte bizitzaren berreskuratzea kontatzen du, berreraikitako Jerusalemen izan zen hori erbestealditik itzuli ondoren. Jainkoaren Herriaren historiaren une handia da, Jesusek egingo duen berrezarkuntzaren aurrerapen garbia. Bigarren irakurgaietan, Paulok kristau-elkartearen izaerari buruz egiten duen irakaskuntza jasotzen da. Gorputz horren burua Kristo da, Espirituaren bidez bizi da, eta hainbat ekintza eta jardun osagarri ditu. Ebanjelioak Jesusek bere buruaz profetek iragarri eta Jainkoak bidalitako Mesias gisa egiten duen aurkezpena jasotzen du.

*Mezua*

Joan Bataiatzailearen predikazioa eta Jesusen bataioa aipatu ondoren, Lukasek Jesusek Galilean egindako predikazioaren hasiera kontatzen du. Eta Jesusek bere egiten du Isaiasek, Jainkoaren herria kontsolatzeko eta Jerusalem berreraikitzeke bidalitako Profetaz esan zuena. Pasarte honetan, Jesus Jainkoak bidalia dela esaten da, Jainkoaren Espirituak gantzutua, kontsolazio- eta askapen-misio baten eramailea, Jainkoaren amnistiaren iragarle eta egilea, grazia eta errukia nagusituko den garai berria dakarrena. Batzuetan, erredukzionismo pixka bat egiten da testu hau interpretatzean, bertan Jainkoak mundu honetako pobreak materialki askatzeko helburu bakarra balu bezala. Profetak esaten duen guztia errealitate sakonago eta zabalago baten zantzuak dira: «Jainkoaren graziatzko urtea», barkamenaren eta errukiaren, maitasunaren eta salbamenaren garaia. Jesusen hitzik berriena geroago dator: «Gaur betetzen da hitz hau». Beraz, Itunaren Profeta eta salbamenaren Mesias gisa aurkezten ari da beraren burua. Jesusen “gaur” horrek bera bizi den garai eta leku guztiak biltzen ditu. Bera da aukera handia, mundua salbatzeko une handia. “Gaur” horretan dago gure bizitza, gure lurra, gure kultura, eta gutako bakoitza ere. Pauloren testuak Jesusen espirituak berritua den gizateriaren panorama aurkezten digu: gizadi hautsia eta zauritua Eliza eta munduko familia bihurtua.

*Bizitzarako iradokizunak*

Adi gaude Jesusen irudia eta lana ez pobretzeko. Jesus ez da mundu honetara etorri arazo sozial eta ekonomikoak konpontzera. Jainkoaren eta gure arteko grazia- eta itun-garaia hastera etorri da. Bizia Jainkoarekiko harreman berri horren ondorioz, justizia egongo da pobreentzat eta osasuna gaixoentzat. Kristok bizitza osoa berritzen du, baina ez dugu bere egitekoaren xedea eta garrantzia aldatu behar. Nazareten gertatutakotik ikasten dugu: harengandik

hurbilen zeudenek ez zioten sinetsi, ez zuten onartu nahi izan berak zerbait berria irakastea. Gehiegi ezagutzeak ez zien utzi Jesusen hitza benetako fedez onartzen. Azkenik, Eliza zer den eta zer izan behar duen maitatzen ikasten dugu: Jesusen gorputza, bere espirituak batua eta biziara. Ez dezagun Elizaren izatea gure bekatuekin nahasi. Horixe da Elizaren aurka daudenek darabilten arrazoinamendua. Eta izan ere Eliza santua da, bekatariak osatua bada ere. Eukaristiaren ospakizun bakoitzean Jesusek egin zuena errepikatzen da: hemen eta orain hitz hori betetzen da elkarte bakoitzarentzat, bere kide bakoitzarentzat.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Egiogun otoitz senideok, Jainko Aita errukiarrari, bere eskuetan baikaude, eta eska diezaigun uste onez entzun ditzala bere herriaren otoitzak:

- Jainkoaren Elizaren alde: egunez egun lehia handiagoaz bila dezan bere Jaunaren aurpegia eta bere kide guztiak saia daitezen bihotz berriz bizitzen. Eska diezaigun Jaunari.
- Nazio guztietako arduradunen alde: gogoz eta kemenez lan egin dezaten guztiontzat bakea eta ongizatea bilatuz, denongan bakea eta justizia nagusitu daitezen. Eska diezaigun Jaunari.
- Gaixoen alde, kartzelatuen alde, sufritzen duten guztien alde: errukiaren Jainkoak barne-bakez bete ditzan eta guk denei lagun diezaiegun. Eska diezaigun Jaunari.
- Hemen bilduak gauden guztion alde: Jainkoak fedean sendo irauteko eta elkarren maitasunean hazteko grazia eman diezagun. Eska diezaigun Jaunari.

Zure Semea bidali duzu, Jauna, behartsuei Berri Ona iragartzera, gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena ematera; entzun gure otoitzak eta egizu Zure hitza entzun dadila mundu osoan eta gu, hitz horrek bizkorturik, salbamenaren hots egile izan gaitzela gizakien artean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Begira, Jauna, begi onez gure eskaintzari, eta sagara ezazu zeure Espirituaren indarrez, guretzat salbamen-sakramentu gerta dadin. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko ahalguztiduna, bizi berriaren grazia eman diguzu; egizu, poztu gaitzela beti dohain honetaz. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.



Urtarrilaren 30ean  
**URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA (C)**

## **Agurra**

Jauna zuekin.

## **Sarrerako Oharpena**

Gutako bakoitza, Jaunak aukeratuak garelako oroitarazten digu igandeko batzarrak. Eukaristian berritzen dugu bokazio hori eta suspertzen da gure fedea, itxaropena eta maitasuna. Kristoren adiskide izateak laguntzen digu, biziaren sakramentuan parte hartuz, gure dohainak, sendotasunez partekatzen.

## **Damu-otoitza**

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garelako, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaitzen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟**. Amen.

## **Otoitza**

Jainko gure Jauna, egizu, gur zaitzagula bihotz-bihotzez eta maita ditzagula gizon-emakume guztiak egiazko maitasunez. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. **℟**. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Itun Zaharrean ohikoak dira garaipenak, agerpen argitsuak, literatura liburu onenetako harrigarriak... Jeremias, ordea, apala da: Jainkoak sendotzen du. Berdin Jesu Kristo ere, ez dator inor menderatzera; askatasuna, grazia eta bedeinkapena dakartza.

## Lehenengo irakurgaia (Jr 1, 4-5. 17-19)

Jeremias Profetaren liburutik

Josias erregearen egunetan, honela mintzatu zitzaidan Jauna: «Amaren sabelean sortu aurretik aukeratu zintudan; jaio aurretik sagaratu zintudan eta profeta izendatu, nire mezua herriei iragartzeko. Zu egon prest Nik aginduko dizudan guztia haiei adieraztera joateko. Ez izan haien beldur; bestela, zeuri sartuko dizut Nik haienganako beldurra. Gotorleku egiten zaitut gaur, burdinazko zutabe eta brontzezko hesi, herrialde guztiaren aurka. Borroka egingo dizute, baina ez zaituzte menderatuko; zeurekin izango bainauzu, hala dio Jaunak, zu libratzeko».

## Erantzun-salmoa (Sal 70, 1-2. 3-4. 5-6ab. 15ab eta 17)



- ℣. Zugan babesten **naiz**, Jauna,  
ez nadila behin ere lotsagarri **gerta**.  
Libra nazazu eta atera onik, zuzena **baitzara**,  
makurtu nigana belarria eta salba **nazazu**. ℟.

- ✠. Izan zakizkit harkaitz babesle, ‘  
 nora jo izan dezadan beti;  
 ni salbatzea erabaki duzu,  
 Zu baitzaitut neure haitz eta gatzelu.  
 Ene Jainko, aska nazazu gaiztoaren eskutik. ✠.
- ✠. Zu baitzaitut, Jauna, neure itxaropen,  
 Zu, ene Jauna, neure konfiantza gaztetatik.  
 Zu izan zaitut euskarri amaren sabeletik,  
 Zu neure indar amaren erraietatik. ✠.
- ✠. Nire ahoak egun osoan iragarrriko du  
 zure salbamen-asmoa eta -egintza.  
 Ene Jainko, gaztetatik irakatsi didazu,  
 eta gaur arte iragarri ditut zure egintza harrigarriak. ✠.

### **Bigarren irakurgaia** (1 Ko 12, 31–13, 13 edota, laburrago 1 Ko 12, 4-13)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: [Irrika itzazue dohainik hoberenak. Eta orain bide bikainagoa adierazi nahi dizuet. Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzetan hitz egin, maitasunik ez badut, brontze soinulari eta ezkila tintinlari besterik ez naiz. Nahiz eta profezi dohaina izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko adinako sinesmena izan, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. Dudan guztia behartsuen artean banatu eta neure gorputza erretzeraino emanda ere, maitasunik ez badut, ez dit ezertarako balio.]

Maitasuna pazientzia handikoa da eta bihozbera; ez du bekaizkeriarik, ez handiusterik, ez harropuzkeriarik. Ez da lotsagabea, ez berekoia, ez haserrekorra; kaltea ez du gogoan hartzen. Ez da bidegabekeriaz pozten, baizik eta egian pozten da.

Maitasunak dena barkatzen du, dena sinesten, dena itxaroten, dena ongi eramaten.

Maitasuna ez da sekula itzaltzen. Profezi dohaina desagertuko da, hizketa arrotzez hitz egitea amaituko, jakintza ere desagertuko. Erdizkakoa baita gure ezaguera, erdizkakoa gure profezia; eta, bete-betekoa iristean, desagertu egingo da erdizkakoa. Ume nintzenean, ume bezala mintzo nintzen, ume bezala sentitzen nuen, ume bezala pentsatzen. Gizon egin naizenean, utzi egin ditut ume-gauzak. Orain dena ilun ikusten dugu, ispiluan bezala; orduan, aurrez aurre ikusiko dugu. Orain erdizka ezagutzen dut; orduan, oso-osoan ezagutuko dut, Jainkoak ni ezagutzen nauen bezala.

Hiru gauza hauek diraute orain: sinesmenak, itxaropenak eta maitasunak; baina hiruretan handiena maitasuna da.

### Aleluia (Ik. Lk 4, 18a-19a)



℣. Behartsuei Berri Ona ematera bidali **nau** Jaunak, gatibuei askatasuna hots **egitera**. ℟.

### Ebanjelioa (Lk 4, 21-30)

### Homiliarako argibideak

MAITASUNAREN PROFETA

*Irakurgaiak*

Jeremiasen profeziaren hasiera da lehenengo irakurgaia, beraren bokazioaren kontakizuna, alegia. Jeremias «indarraren profeta» dela esan genezake. Jeremiasen kontakizunarekin lotuz, bere ingurukoek baztertutako profeta moduan aurkezten digu Lukasek Jesus. Profetak iragarritako Jainkoaren borondatea beti da harrigarria eta askotan deserosoa. Erosoa den erlijioa susmagarria da. San Joan Ebanjelariak oso maiteak dituen ideiak jasotzen ditu San Paulok bigarren irakurgaiari: Jainkoa maitasuna da, eta, egiazko bizitza, Jainkoak ematen digun maitasun hori bizitzea da. Kristogan aurkitu eta ikasi dezakegu maitasun harrigarri hori.

### *Mezua*

Gauza handietara deitzen gaitu Jainkoak eta berak laguntzen digu bete ahal ditzagun. Bere deiarekiko bihotz zabala ezinbestekoa da egia ezagutu eta gure bizitzaren handitasuna iristeko. Jainkoaren profeta handiekin bat dator Jesus, Jainkoaren borondatea gure salbamen eta santutasunerako egiazko bide bezala onartu duten guztiekin bat. Jesusen hitza, Elizaren irakaspenak, santuan etsenplu eta kontseiluak... bizitzaren egoera bereziei lotuta, Jainkoaren nahia ezagutzeko ohiko bide gertatzen zaizkigu. Hala ere, Jainkoaren nahia ohikoa baino haratago doa, “zuzena” dena gainditzen du, era berritzailean, harrigarrian, eta batzuetan deserosoan. Bere buruarekin pozik daudenek, onak direla uste dutenek, eroso bizi direnek, Jainkoaren berritasuna baztertzeko arriskua dute. Izan ere, kristau izatea beti da egiazko maitasunaren eskakizunei men egitea: Jainkoaren nahia geure egin eta hurkoarekiko zerbitzu eskuzabal eta eginkorra bizitzea. Beldurra eta erosotasuna oztupo dira bihotza zabaltzeko, Jainkoaren maitasuna eta hurkoarekiko zerbitzua, berriz, askatzaile gertatzen zaizkigu, Jesusengana gerturatzen gaituzte.

### *Bizitzarako iradokizunak*

Eukaristia da maitasunean hazteko eskolarik onena, Jainkoaren maitasunak, Kristorenak eta senideenak bat egiten duten topagunea. Gure bizitza benetan kristau-bizitza bada, profeten ausardia izango dugu, bizitzako hainbat egoeratan Jainkoaren nahia aurkitzeko guretzat eta besteentzat. Bere deiaren eskakizuna sumatzen ez badugu eta “zintzo ustekoen” edota konformisten zaputza sekula jaso ez badugu... agian gure kristau bizitzak falta du oraindik araztua eta askatua izatea. Ez dezagun uste dena lortua dugunik, ezta, erremediorik ez dugunik ere. Bizi gaitezen ikasleen jarrerarekin, beti hobeak izan nahi duten bekatarien jarrerarekin. Ez dezagun bizitza gehiegi zaildu. Jainkoaren maitasuna, otoitza, bihotz zabala, erosotasunetik atera eta besteentzat bizi nahi izatea... aski laguntza dira egiazko zorionean aurrera egiteko. Gauza desberdinetara deitzen du Jainkoak gutako bakoitza, egintza onetara, egintza berrietara, beharrezkoak diren egintzetara, gu baino handiagoak diren egintzetara. Harrigarria eta ikasbide bikaina gertatzen zaigu honetarako guztirako santuen sormena.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok, dei egin diezaiogun bihotz batez on guztiaren iturri den Jainko Aitari:

- Hemen Jaunaren izenean bildua eta mundu osoan zabaldua dagoen Elizaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriaren alde, ongizatean eta bakean aurrerapausoak eman ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bidean direnen alde, gaixoen, kartzelatuen, behartsuen eta sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure senide hildakoen alde, Jaunak bere argizko eta zorionezko erreinuan sar ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, bere herrian onartua ez zen profetarengan agertu zenigun salbamera onartzen edo gaitzesten duen gizadiaren zoria; entzun gure otoitzak eta egizu Zure Elizan ez daitezela sekula falta Ebanjelioa ausardiaz hots egingo duten misiolariak. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Hona hemen, Jauna, aldare gainean zure zerbitzarion eskaintza; har ezazu bihotz onez eta egizu guretzat sakramentu salbagarri. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Indarberritu egin gaituzu, Jauna, gure erospeneko sakramentuaren bidez; egizu, betiereko salbamenaren janari honi esker, egin dezagula beti aurrera egiatzko fedean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

Otsailaren 6an  
**URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA (C)**

### **Agurra**

Jauna zuekin.

### **Sarrerako Oharpena**

Igandeko Eukaristian ospatzen dugu kristauok gure fedea. Astean zehar fede hori bizitzen saiatu garenok Jaunaren ondoan biltzen gara elkarrekin, gorputz bat beraren zati garenez. Entzun dezagun bere hitza, har dezagun bere Gorputz santua. Senti gaitezen bidaliak, eguneoko ahaleginean ospatzen duguna partekatzeraz.

### **Damu-otoitza**

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera **etorri** zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, zeruan poz handia izango dela **esan** zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko **barkatzen** diozuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.



## Otoitza

Zaindu familia hau, Jauna, zeure betiko maitasunez; eta gure esperantzaren oinarri bakarra zure grazia zerutarra denez gero, har gaitzazu beti zeure babespean. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Entzutera goazen Hitza indarrez eta misterioz betea dago. Isaiasek Jainkoaren esperientzia kontatzen digu, berak bizi izan zuen bezala. Deitua sentitzen da, baina deiak gainditua. Dei horrexek bete zituen apostoluak, eta dei hori jasotzen dugu guk ere gaur.

## Lehenengo irakurgaia (Is 6, 1-2a. 3-8)

Isaias Profetaren liburutik

Ozias erregea hil zen urtean, Jauna ikusi nuen, tronu altu eta garai batean eseria; haren mantu-hegalak tenplua betetzen zuen. Suzkoak bezalako izaki batzuk zituen gainean; seinu hegal zituzten. Eta honela egiten zioten oihu elkarri: «Santu, santu, santua, Jaun ahalguztiduna! Lur osoa betetzen du haren aintzak!»

Ahotsaren oihuz tenpluko ate-orpoek dardara egin zuten, eta tenplua kez bete zen. Nik esan nuen: «Ai ene, galdua naiz! Ezpain kutsatuak baititut eta ezpain kutsatuak dituen herrian bizi naiz. Errege eta Jaun ahalguztiduna ikusi dut neure begiz!»

Une hartan, suzkoak bezalako izaki haietako bat etorri zitzaidan hegan, aldaretik suhatzez harturiko txingarra eskuetan zekarrela, eta txingarraz ahoa ukitu zidan, esanez: «Hara, txingar honek ezpainak ukitu dizkizu; kendua duzu, bada, gaiztakeria, barkatu zaizu bekatua».

Orduan, Jaunaren ahotsa entzun nuen esaten: «Nor bidaliko dut? Nor izango dugu mandatari?» Eta nik erantzun: «Prest nauzu, bidali neu».

### Erantzun-salmoa (*Sal* 138 [137], 1-2a. 2b-3. 4-5. 7c-8)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-  
 a be - re be - ti - ko e - rru - ki - a.

- ℣. Eskerrak ematen dizkizut, Jauna, bihotz-**bi**hotzez,  
 nire hitzak entzun dituzulako;  
 kantuz goratzen zaitut aingeruen **aur**rean,  
 eta zure tenplu santurantz begira ahus**pez**ten naiz. ℞.
- ℣. Eskerrak ematen dizkiot zure izenari, ‘  
 zure maitasun eta leialtasun**ag**atik,  
 Paregabeak egin baitituzu zeure izena eta **prom**esa.  
 Dei egin nizunean, erantzun **zen**idan,  
 kemena bizkortu bi**hot**zean. ℞.
- ℣. Eskerrak emango dizkizute, Jauna, munduko errege **guz**tiek,  
 zure ahoko hitzak ent**tz**utean;  
 kantuz ospatuko dituzte Jaunaren **bi**deak:  
 handia da Jaunaren ospea **ben**etan. ℞.
- ℣. Eskua luzatu eta salbat**zen** nauzu.  
 Dena egingo du Jaunak nire alde.  
 Jauna, zure maitasuna bet**i**koa,  
 ez utzi bertan behera zeure esku**en** lana! ℞.

**Bigarren irakurgaia** (1 Ko 15, 1-11 edota, laburrago 1 Ko 15, 3-8. 11)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: [Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten.]

Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaioela, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei.

Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

[Izan ere, apostoluetan txikiena naiz ni, apostolu-izenik ere merezi ez duena, Jainkoaren Eliza pertsegitu bainuen. Baina naizen hau Jainkoak bere graziaz egin nau, eta haren grazia ez da nigan fruiturik gabea izan; gainerako apostolu guztiek baino lan gehiago egin dut, izan ere; ez, noski, nik, baizik eta Jainkoak nirekin bere graziaz.]

Horrela, bada, bai haiek eta bai nik, horixe da hots egiten dugun mezua, eta horixe zuek sinetsi duzuen.

**Aleluia** (Mt 4, 19)



℣. Zatozte Nirekin, dio **J**au**n**ak,  
eta giza arrantzale egingo **z**aituztet. ℞.

## Ebanjelioa (Lk 5, 1-11)

### Homiliarako argibideak

ITSASO BARNERA!

#### *Irakurgaiak*

Profeziak eta bokazio-gaia dugu gaur ere. Lehenengo irakurgaiak Isaiasen bokazioa kontatu digu. Jainkoaren handitasunaren eta santutasunaren esperientzia sendoa du oinarri. Ebanjelioak bat egiten du lehenengo irakurgaiarekin. Apostoluak harriturik geratzen dira Jesusen indar misteriotsua aurkitzean, beraren presentziak Jainkoaren ondoan sentiarazten ditu, erakarriak eta liluratuak gertatzen dira. Bere misiora deitzen ditu Jesusek eta beraiek dena uzten dute Jesusi jarraitzeko. San Paulok berriz apostoluen predikuaren laburpena aurkeztu digu: Jesus gure bekatuengatik hil zen eta Jainkoak piztu egin du munduaren eta historiaren Jaun eratzuz. Hori da guk sinesten duguna. Eta, hori da iragarri behar duguna.

#### *Mezua*

Gure bizitzaren orientabideak eta balioak zerikusi handia du bakoitzak duen Jainko-esperientziarekin. Pertsona izatea errealitatearen aurrean askatasunez bizitzea da, errealitate hori Jainkoaren egintza eta dohain bezala ikusiz; Jainkoa da guztiontzat benetako eta betirako egia. Jesusen hitzek eta egintzek, bere Seme izateak, eta bereziki beraren heriotza eta piztuerak Jainkoaren egia hori aurkezten digute: Jainkoaren maitasuna, errukia eta bizia

emateko indarra. Esperientzia sakon honetatik sortzen dira kristauen bizitzako desirak eta proiektuak; hor sortzen da Jainkoaren deia, on egiteko gaitasuna, lotzen gaituzten gauzetatik askatu eta Jesu Kristori jarraitzeko askatasuna. Jesus bere salbamen egitasmora gonbidatzen gaitu eta gure bizitza edertzen du bide batez. Horregatik, otoitzak eta Jainko esperientziak sendotzen dute gure barne-bizitza, gure kristau-bizitza.

### *Bizitzarako iradokizunak*

Gure otoitz bizitzari buruz galdetu behar genioke geure buruari. Zenbat denbora eskeintzen diogu otoitzari? Saiatzen al naiz isiltasuna eta Jainkoaren presentzia bilatzen. Beharrezkoa dugu gure fedearen sustriak zaintzea. Lagundu egiten digu Jaunak bere presentziaz eta graziaz. Eukaristian parte hartzearen eta Jauna gurtzearen fruiturik onena hori da: bere presentzia sumatzea. Benetako bihotz-berritzeak hau galdetu erazi behar liguke: «Jauna, zer nahi duzu egitea?». Gure bizitza Jaunaren zerbitzuan jartzeko beldurrik ez dugu izan behar. Elizaren zerbitzuan jartzen garenean gauzatzen da hori, berak behar gaituen tokian izan gaitzan. Jaunak ez gaitu mugatzen, handitu egiten gaitu eta «giza-arrantzale» egiten gaitu, «gizakien salbatzaile», alegia. Hori da kristauon bokazioa, edozein bizi-egoeratan: denen zerbitzura bizitzea. Zein ederra geure interesen ginetik Jaunaren deia jartzeko gai bagina beti! Gure apaltasuna aitortu eta Jaunaren egintza miragarriak gorestea da bidea. Jainkoak ez du sekula hutsik egiten.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Egiogun otoitz senideok Aitari, betiereko Jainkoaren Semeari eta on guztiaren iturria den Espirituari:

—Munduan zabaldurik dagoen egiazko Jainkoaren elizarentzat, eska dezagun Jainko-maitasun egiazkoa. Eska diezaiogun Jaunari.

- Herrietako agintarientzat eta gizakien bizimodua euren eskuetan dutenentzat eska dezagun zuzentasun espiritua eta herritarrak zerbitzatzeko lehia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Zapalduak diren ahulentzat eta pertsegituak diren zuzenentzat eska diezaiogun Jesus Salbatzaileari. Eska diezaiogun Jaunari.
- Geuretzat eska diezaiogun Jaunari seme-alabatzako begirunea, maitasun leiala eta bititza zorionsua. Eska diezaiogun Jaunari.

Ona zaren Jainkoa, gure ahultasunean konfiantza izanik Berri Ona zabatzeko misioa eman diguzu; entzun Zure familia honen otoitzak eta egizu Zure Espirituaren indarrez saia gaitzela Zure Hitz salbagarria bihotz zabalez gizon-emakume guztiei entzunarazten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Jainko gure Jauna, gorputzeko ahuldadean guri eusteko egin dituzu ogi-ardoak; egitzazu guretzat betiko biziaren sakramentu ere. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Oi Jainko, ogi eta kaliza berean guk parte hartzea nahi izan duzu; egizu, Kristorekin gorputz berean bat eginik, eman dezagula pozik betiko fruitu ugari munduaren salbamenerako. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Otsailaren 13an  
**URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA (C)**

### **Agurra**

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

### **Sarrerako Oharpena**

Kristoren eskaintzak ematen dio zentzua gure eguneroko ahaleginari eta eskaintzari. Berarengan dugun fedea ospatzen dugu elkarrekin Igandean, Jaunaren egunean. Kristo piztuak deitu gaitu gaur ere eta zorionsuen eta apalen bidean zuzendu nahi ditu gure urratsak, Jainkoarengan gure bihotza jartzen dugunon urratsak.

### **Damu-otoitza**

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiozun errukia Jainkoari

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

### **Otoitza**

Oi Jainko, bihotz garbi eta zintzoengan biziko zarela agindu duzu; zeure graziari esker, egin gaitzazu zure bizileku izateko gai.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

### Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkozko gizakiaren fruituak bikainak dira: justizia, errukia, besteen askatasuna bilatzea. Egiatzko iturritik edan behar benetako zoriona iristeko: Jainkoa da iturria, itxurazko zailtasunak gaindituz zorioneko egiten gaituena.

### Lehenengo irakurgaia (Jr 17, 5-8)

Jeremias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Madarikatua konfiantza gizakiagan duena, giza indar hutsean oinarritzen dena eta bihotza Jaunagandik urrutiratzen duena. Basamortuko astalarraren antzeko da, ez du sasoi onik izango; basamortu kiskalian landatua dago, bizi ezineko gatz-lurrean.

Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena, bere euskarri Jauna duena. Ur-ertzean landatutako zuhaitzaren antzeko da, ur bizigarrietara zabaltzen ditu sustraiak; ez dio sargoriari beldurrik, haren hostoak beti hezerik; lehor-urtean ere hura lasai, ez dio utziko fruitu emateari».

### Erantzun-salmoa (Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6)

Bai mai - te du - da - la, Jau - na, zu - re le - ge - a.



- ∞. Zorionekoa gaiztoen aholkuari jarraitzen ez diona, ' bekatarien bidean ez **dabil**ena, ezta lotsagabeen biltzarrean esertzen ere; baizik eta Jaunaren legean atsegin **du**ena, haren legea gau eta egun hausnartzen **du**ena. ∞.
- ∞. Ur-ertzean landaturiko zuhaitzaren antzeko**a** da: ematen du bere garaian **fruit**ua, eta ez zaio historik **ih**artzen; egiten duen guztia ongi zaio **ater**atzen. ∞.
- ∞. Ez horrela gaiztoak, ez **hor**rela, haizeak daraman galautsaren antzeko**ak** dira. Jaunak zaintzen du zintzoen **bide**a; gaiztoena, berriz, galdu **egit**en da. ∞.

### Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 12. 16-20)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Kristo hilen artetik piztua dela hots egiten bada, nolatan esaten dute zuetako batzuek hilak ez direla pizten?

Izan ere, hilak pizten ez badira, Kristo ere ez da piztu. Eta Kristo piztu ez bada, alferrikakoa da zuen sinesmena: zeuen bekatuetan zaudete oraindik. Eta zer esanik ez, hil diren kristauak ere galduak dira. Kristogan jarria dugun itxaropenak bizitza honetarako bakarrik balio badu, gizaki guztietan errukarrienak gara.

Baina ez, piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu.

### Aleluia (Lk 6, 23ab)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, - a - le - lu - - - - ia. -



∇. Alai zaitetze eta egin pozez jauzi,  
handia izango baita zuen saria zeruetan. ∇.

## Ebanjelioa (Lk 6, 17. 20-26)

### Homiliarako argibideak

KRISTAU ZORIONTSUAK NAHIZ DOHAKABEAK

#### *Irakurgaiak*

Mendiko hitzaldia, Jesusek predikazioaren laburpen laburpen bikaina jasotzen du gaur Lukasen liburuko pasarteak. Jeremias profetaren irakurgaiak berriz, Israel herriak itun-herri izaera eta Jainkoarekiko lotura zaindu ditzan profetak emandako aholkuak jasotzen ditu. Korintoarrei idatzitako gutunaren pasarte laburrak aldiz, Jainkoarekiko leialtasuna Kristoren piztueran sinetsiz eta geure piztuera itxaronez gauzatzen dela oroitarazten digu. Gaurdanik piztueraren egia bikain hori sinetsiz eta Jainkoaren indarra eta ontasuna aitortuz ematen diogu aintza Jaunari.

#### *Mezua*

Bizitzaren kristau-ikuspegiaren laburpena dira irakurgai hauek. Honela laburbildu ditzakegu:

1. Jainkoak piztu egin du Jesu Kristo Jauna beraren aintzaren partaide eginez eta, honela, guri ere piztuerarekiko bidea eta itxaropena zabaldu dizkigu.
2. Jainkoak gure esku jartzen dituen promesek eta aukerek gure askatasunerako gaitasuna sendotzen dute. Gure esku dugu gure biziaren etorkizuna: betiereko zorionerako edota galbiderako.

3. Jesusi apaltasunaren eta justiziaren bidetik jarraitzeak zorionera eta betiko bizira garamatza. Itxurari ez zaio begiratu behar: pertsekuzioa eta zailtasuna gerta daiteke zorionerako bide. Aberastasuna eta txaloak, bakardade eta malko huts izan daitezke azkenean. Jesusen zoriontasunek Jeremiasek aipatutako bi bideen egiazko zentzua agertzen digute.

### *Bizitzarako iradokizunak*

Irakaspen hauen bizipen praktikoa hau da: Jesusen piztuera egiaz sinestea eta geurea benetan itxarotea. Erdizka sinestea fedearen distira eta poza galtzea da. Piztuera ortzemugan ez duten kristauak triste bizi dira. Legea dute ardatz eta ez dute bizi berri, gainezkako, aske, unibertsal eta pozez betearen gozamina ezagutzen. Horretan jardun behar dugu behin eta berriz. Zeruko bizitza da betiko bizia eta hark ematen dio zentzua bizitza honi. Fedeari eta esperantzari esker etorkizunari begira bizi denak, Jainkoari eta Kristori bidea zabaltzen dionak betiko eta egiazko bizi betea gozatuko du. Piztueraren indarrari bizitza zabaltzen ez dionak eta mundu honetako gauzetan itsutua dagoenak ezinegona eta iluna izango ditu gainezka. Kosta egiten zaigu bizitzako gauzak eta gertakariak zeruko bizitzaren ikuspegiarekin bizitzea. Baina hori da egian bizitzeko era bakarra. Hori da kristau izatea eta egiazko jakinduria. Fede horretatik datorkigu barne zuzentasuna eta egiazko poza. Horrek izan behar du gure eskabidea eta gure irrika. Eukaristia da Zerutik jaitsitako ogia, berarekin betiko bizi gaitezen Zeruan.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Jo dezagun, senideok, errukiaren Jainkoarengana eta eska diezaiogun bere gogora bizitzeko indarra:

—Mundu guztiko bakearen alde, Elizen onaren alde eta gizakien batasunaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.

- Herrietako arduradunen alde, beren ardurapean bizi oparoa eta bakezkoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Naturaren zaintzaren alde, lurraren emankortasunaren alde, munduaren aurrerabidearen alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Piztueraren itxaropenean hil diren gure senide eta adiskideen alde, Jainkoak bakezko atsedena eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, handikiak beren aulkitik botatzen dituzu eta ondasunez betetzen dituzu apalak; entzun gure otoitzak, aditu herri guztietan zugana altxatzen den behartsu eta zapalduen deadarra, hautsi elkarren etsai egiten gaituen indarkeriaren eta norberekeriaren uztarria eta emaguzu senide bezala elkar onartuz maitasunean bildutako gizadi berriaren ezaugarri izatea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Eskaintza honek, Jauna, garbi gaitzala eta eraberritu; eta zure nahia betetzen dutenentzat izan dadila betiko sariaren iturri. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Jauna, zerutar ogi osasungarria eman diguzu janari; egizu, bila ditzagula guk ere beti egiazko bizia ematen diguten ondasunak. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Otsailaren 20an  
**URTEAN ZEHARREKO VII. IGANDEA (C)**

### **Agurra**

Jainko itxaropen-emailea, Espiritu Santuaren egintzari esker bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituena, izan bedi zuekin.

### **Sarrerako Oharpena**

Zatiketa eta gorroto oro gaindituz Jainkoaren Pazko misterioan murgiltzen gaituen maitasun ospakizuna da Eukaristia. Presta gaitezen, Aitaren errukizko bihotz bera izaten laguntzen digun batzar santua ospatzeko.

### **Damu-otoitza**

Aitor dezagun bekatari garela eta eska diezaioگون apalik barkamena zeruetako Aitari, guk ere geure senideei bihotzez barkatuz.

—Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

### **Otoitza**

Jainko ahalguztiduna, zure laguntzak egin gaitzala gai, beti zuzen dena hausnartuz, Zuri atsegin zaizuna hitzez eta egitez betetzeko. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Aita errukitsua da Jainkoa, hala agertzen zaigu Liburu Santu osoan eta hala islatzen dute gaurko irakurgetan ere. Aita hori da Jesusek jartzen digun eredu, eta Aita horren antzekoak izatea da ezartzen digun neurria: barkatzaileak, errukitsuak, maitasunez beteak.

## Lehenengo irakurgeta (1 Sm 26, 2. 7-9. 12-13. 22-23)

Samuel lehenengo liburutik

Egun haietan, Saul erregea Zif basamortura jaitsi zen, Israelgo hiru mila gizon aukeratu berekin zituela, Daviden bila.

David eta Abixai gauetz iritsi ziren Saulen gudarostea zegoen lekura. Saul lo aurkitu zuten, kanpalekuaren erdian etzana, lantza lurrean sartua buru ondoan. Abner eta gainerako jendea erregearen inguruan zeuden lo. Abixaik esan zion Davidi: «Jainkoak zeure esku jarri dizu gaur etsaia. Uztazu lantza-kolpe batez lurrari josten; ez dut birritan jo beharrik izango». Davidek, ordea, Abixairi: «Ez hil! Ez litzateke zigorrik gabe geldituko Jaunaren gantzutuari eskua ezarriko liokeena».

Orduan, Davidek Saulen buru ondoan zegoen lantza eta ur-ontzia hartu zituen, eta alde egin zuten biek. Ez zituen inork ikusi, ez zen inor ohartu, ezta inor esnatu ere. Lo zeuden denak, Jaunak bidalitako lozorroak harturik.

David bestaldera joan eta mendi gailurrean gelditu zen, urrutian, etsaien eta bere artean tarte handia utziz. Davidek oihu egin zuen: «Errege, hona hemen zure lantza. Bidal ezazu mutilen bat bila. Nori berea ordainduko dio Jaunak, bere zuzentasunaren eta leialtasunaren arabera. Jaunak nire esku jarri zaitu gaur, baina nik ez diot eskurik ezarri nahi izan Jaunaren gantzutuari».

**Erantzun-salmoa** (*Sal* 103 [102], 1-2. 3-4. 8 eta 10. 12-13)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a  
ta mai - ta - su - na.

- ∞. Bedeinka beza nire **arimak** Jauna,  
nire barren osoak haren izen **santua**.  
Bedeinka beza nire **arimak** Jauna,  
ez bedi ahaztu haren **mesedeaz**. ∞.
- ∞. Erru guztiak dizkizu **bar**katzen,  
gaitz guztiak **sen**datzen;  
zure bizia hilobitik **askatzen** du,  
maitasunez eta errukiz koro**atzen** zaitu. ∞.
- ∞. Bihozbera eta errukiorra **da** Jauna,  
haserregaitza eta onginahiz **betea**.  
Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi **bezala**,  
ez digu ordaintzen geure erruen **arabera**. ∞.
- ∞. Nola ekialdea mendebaldetik urrun,  
hala ditu hark gure hobenak gugandik **urruntzen**.  
Nola aita seme-alabentzat **errukior**,  
hala Jauna begirune diotenentzat **gupidatsu**. ∞.

## Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 45-49)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: «Lehenengo gizakia, Adam, izaki bizidun bilakatu zen»; azkeneko Adam, berriz, Espiritu bizi-emaile.

Ez zen espirituzkoa izan lehenengoa, haragizkoa baizik; ondoren dator espirituzkoa. Lehenengo gizakia lurreko hautsetik hartua izan zen; bigarrena, berriz, zerutik dator. Lurtarra, Adam, lurtarren eredu da; zerutarra, Kristo, zerutarren eredu.

Eta lurtarraren irudiko garen bezala, zerutarraren irudiko ere izango gara.

## Aleluia (Jn 13, 34)



Agindu berria ematen dizuet, **dio** Jaunak:  
maita dezazuela elkar,  
Nik maite izan zaituzted**an** bezala. R.

## Ebanjelioa (Lk 6, 27-38)

### Homiliarako argibideak

JAINKO ERRUKITSUAREN SEME-ALABA

#### Irakurgaiak

Gaurko irakurgaiak Jesusen irakaspenak eta etsenplua geureganatzeko gonbidapena dira. Samuel liburuko kontakizunak



Davidek Saul Jaunarekiko errespetuz erahil ez izana kontatu digu. Paulok, berriz, Adam berria aipatu du, gizaki berriak, zerura begira bizi direnak berarengandik datozela esanez. Gizatasun berriaren oinarria zertan datzan aipatzen du Lukasek: Mendiko hitzaldiaren amaiera, Jesusek Jainkoaren seme-alabentzat duen irakaspen gorena da.

### *Mezua*

Testuak aipatzean esana geratu da. Seme-alaba garenez errukitsua eta onginahiz betea den eta denak maitatu eta denei on egiten dien Aita Jainkoaren arabera bizitzen ikasi behar dugu. Berarengandik ikasi zuen Jesusek maitatzen eta bere burua denentzat eskaintzen. Horixe eskatzen digu ikasleoi: «Izan zaitezte errukitsuak zeruko zuen Aita errukitsua den bezala». Gainontzekoa honen hedapena da: egin on guztiei, barkatu, maitatu etsaiak ere. Kristauok justiziak eskatzen digun minimoaren gainetik egon behar dugu, gehiago eginez. Jesus bezalakoak izatea da gure araua: onginahizko eta errukizko Jainkoaren antzeko izatea. Legeak eskatzen diguna edo munduarentzat zuzena dena baino gehiago egiteko prest egon behar dugu. Bi dira horretarako arrazoi sendoak. Lehenengoa, Jainkoaren irudiko izatea, seme-alaba izateko. Bigarrena geure interesa: guk neurtzen dugun neurritz neurtuak izango gara. Errukia eskaintzen badugu, errukia aurkituko dugu. Zorrotzak bagara, zorrotz hartuko gaituzte.

### *Bizitzarako iradokizunak*

Mezuaren gaurkotasuna izugarria da. Kaleko logikak esaten digu “azkarrak” izatea dela garrantzitsua: etekina atera behar dela, besteen gainetik geratzeko abildadea behar dugula. Jesusen logika, berriz, oso desberdina da: Eukaristia da Jesusen neurria: maitasunaren eskaintza, alegia. Hobe da ematea jasotzea baino; hobe da barkamena mehatxua baino. Gizakion egiazko justizia

guztiekin onginahia eta errukia izatea da. Barkatzen badugu, barkatuak izango gara. Errukitsu bagara, errukiz hartuko gaituzte. Gure jokabideak aztertzea da neurririk onena: nola jokatzen dugu besteekin, familiarekin, lagunekin, eztabaidetan, atsegin ditugunekin nahiz kalte egiten digutenekin? Penagarria da kristau asko haserre ikustea elizak barkatzeko dionean, elizak etorkinak onartzeko esaten digunean, elizak denekin maitasunez jokatzeke esaten digunean. Kritika horiek ez dira kristau espiritu egiazko baten fruitu. Gorrototik jaiok dira. Gehiago irakurri behar dugu Ebanjelioa.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: dei egiogun Jainko onari otoitz xume eta egiazkoa eginez:

— Eguzki alde batetik besteraino zabaldurik dagoen Eliza Santuaren alde: Jaunak itxaropenean sendo dezan eta munduko lilura eta gehiegikerietara jo ez dezan. Eska diezaiogun Jaunari.

— Munduan agintea dutenen alde: haien gidaritzapean bakez bizi gaitezen, Kristo, gure itxaropena, goratuz. Eska diezaiogun Jaunari.

— Fedearen testigantza emateagatik sufritzen dutenen alde, misiolarien alde: Jaunak leial sendo ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.

— Jaunaren izenean bilduak gaudenon alde eta otoitzean gogoan ditugun guztien alde: Jainkoak fedean sendo gaitzan eta egun batean guztiok Bere erreinuan bildu. Eska diezaiogun Jaunari.

Dena errukia zaren Aita, Kristogan agertu diguzu Zure maitasun debaldekoa, entzun gure otoitzak eta emaguzu bihotz berria gure etsaiak maitatzeko gai izan gaitezen eta gure aurka direnen alde otoitz egiteko gai izan geitezen Zure Semeak agindu bezala. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

**Oparigaien gaineko otoitza**

Zure misterioak dagokien begirunez ospatzean, apalik eskatzen dizugu, Jauna, zure handitasunaren ohoretan eskaintzen dugunak ekar diezagula salbamina. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko ahalguztiduna, salbamen-sakramentu honetan eman diguzun ogia izan dezagula betiko biziaren ezaugarri. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Otsailaren 27an  
**URTEAN ZEHARREKO VIII. IGANDEA (C)**  
*«Manos Unidas» erakundearen jardunaldia*

## **Agurra**

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

## **Sarrerako Oharpena**

Ongi etorri, senideok, Jaunaren eguna ospatzera: Kristoren Piztuera gertaberritu eta beraren Erreinuaren presentzia bizitzera.

Manos Unidas erakundeak Gosearen Aurkako Jardunaldia du gaur, goiburu honekin: «**Gure axolagabekeriak ahanzturara kondenatzen ditu**». Izan ere, geure buruari bakarrik begiraturaz axolagabe bizi garenean, behartsuak ahaztuak geratzen dira, bazterrean. Gaurko jardunaldiak gure ardura esnarazi nahi du, gure otoitzean eta eskuzabal izatean behartsuak eta bereziki gose direnak gogoan izan ditzagun.

## **Damu-otoitza**

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

## Otoitza

Engizu, Jauna, mundu honetako gorabeherak bidera ditzagula zure asmoen arabera zuzentasunean eta bakean, eta emaiozu Elizari zure zerbitzu santuan zintzo irauteko poza. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Liburu santua kutxa eder bat da, zabaltzen dugun aldiro ikasbide ederren bat ematen diguna. Gu ere kutxa eder bat garela oroitarazten digu gaur: barrua onez bete eta kanpora barruko ona ateratzera deitua dagoen kutxa ederra, Jainkoak egindako kutxa.

## Lehenengo irakurgaia (Sir 27, 5-8 [gr. 4-7])

Siraken liburutik

Galbaheari eragindakoa, hondarrak gelditzen dira, eta azterketa egitean, gizakiaren akatsak. Labeak probatzen ditu eltzegilearen ontziak, eta giza arrazoiketak gizakiaren balioa. Fruituak erakusten du nola zaindu duten arbola, eta hitzak gizakiaren pentsamoldea. Ez goratu inor hitz egiten entzun baino lehen, horretan probatzen baitira gizakiak.

## Erantzun-salmoa (Sal 92 [91], 2-3. 13-14. 15-16)

Es - ke - rrak Jau - na - ri, A - ren mai - ta - su - na be -

ti - ko - a bait da.




- ✠. Bai ederra, Jauna, Zu **g**orestea  
 eta zure izena, Goi-goiko, kantuz **o**spatzea,  
 goizean zure maitasuna **i**ragartzea  
 eta gauean zure lei**a**ltasuna. ✠.
- ✠. Zintzoa palmondoa bezala **g**aratuko da,  
 Libanoko zedroa bez**a**la haziko;  
 Jaunaren etxean **l**andaturia,  
 gure Jainkoaren atarietan **g**aratuko da. ✠.
- ✠. Zaharturik ere emango **d**u fruitua,  
 mardul eta heze **i**raungo du,  
 Jauna zuzena dela **i**ragartzeko,  
 nire harkaitza, gaiztakeriarik **e**z duena. ✠.

### **Bigarren irakurgaia** (1 Ko 15, 54-58)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Gure izate ustelkorra bizi ustelezinez jantziko denean, eta izate hilkorra hilezkortasunez, orduan beteko da Liburu Santuak dioena: «Behin betiko garaitua gertatu da heriotza. Non duk, herio, heure garaipena? Non heure eztena?» Heriotza dakarren eztena bekatua da, eta bekatuak legetik hartzen du bere indarra. Eskerrak Jainkoari, garaipena eman digulako Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez!

Beraz, ene senide maiteok, iraun sendo, asmoz aldatu gabe, Jaunaren lanean gero eta gogotsuago, jakinik Jaunak ez duela zuen nekea saririk gabe utziko.

**Aleluia** (*Flp 2, 15b-16a*)

∇. Izarrek munduan bezala egiten duzue argi gizarte honetan, bizia ematen duen mezuari tinko eutsiz. ∇.

**Ebanjelioa** (*Lk 6, 39-45*)**Homiliarako argibideak**

ITXURAKERIAREN ARRISKUA

*Irakurgaiak*

Egiazko jakinduriari buruzko hainbat hausnarketa aipatzen ditu Siraken liburuko irakurgaiak, Ebanjelioaren irakurketa nolabait prestatuz. Mintzo denean ezagutzen da gizakia. Pauloren irakurgaiarekin, azken asteetan irakurri dugun Korintoarren gurtuna bukatzen dugu eta, hau da laburpena: sinets dezagun bihotzez Jainkoaren errukia. Garaipena segurua da. Zoriontasunek ziurtatu digute: egiazko zuzentasuna bihotzean sortzen da eta egintza zehatz eta ikusgarrietan egikaritzen edota gauzatzen da. Hitzak ez dira aski, ezta inora ez garamatzaten sentipenak ere. Sentipenak ederrak dira, egintza sortzen dituzten adinean.

*Mezua*

Jesusen irakaspenak lehentasuna du. Egiazko justizia norberarekin hasten da. Inori ezer irakatsi baino lehen, norbere buruari begiratzea ezinbestekoa da. Damua eta bihotz-berritzea ezinbestekoak dira:

«atera lehenengo zure begiko habea». Apaltasuna, norbere bekatuak eta akatsak aitortzea... ezinbestekoa da zuzentasuna eta santutasuna gauzatzeko. Honela lortzen da bihotzeko osasuna, barneko zuzentasuna; eta hortik sortzen dira egintza onak. Gauza h onak egiteko, ona izan behar da bihotzez, buruz, ideietan, gogoan, barne-barneko irriketan, Jainkoaren eta gizakien aurrean. Barne-justizia horretara iristen denari... berez sortzen zaizkio egintza onak. Guk nahi edo ez, gure bizitzako egia, bihotzeko egiatik loratzen da, gure irriketatik, gure nahieratik, gure gogotik, gure komentzimentu sakonetatik.

### *Bizitzarako iradokizunak*

Garbi izan behar dugu, kristau-bizitzan ez dela aski agindutakoa betetzea, ezta gauza on batzuk egitea ere. Egiatzko kristau bizitzak barru-barruan eragin behar digu eta gure izakera, gure ametsak, gure irrikak eragin behar ditu. Jainkoaren graziari eta laguntzari bihotza zabalduz lortuko dugu hori. Honela hasten gara gizaki berri izaten, Jainkoaren egiatzko seme-alaba eta Jesusen antzeko. Barne-aldaketa hau ez da psikologia hutsa. Gure barne-muinari eragiten dio. Apaltasunaren, otoitzaren eta sakramentuetan ematen zaigun indarraren ondorio da, ez da giza ahalegin hutsa. Gure ahalegina eskatzen du, baita Jainkoarenganako konfiantza ere.

Ezinbestekoa den aldaketa honetan, ***Manos Unidas*** erakundeak gogora ekartzen dizkizgun behartsuekiko arreta dago. Zenbat desberdintasun munduan. Zenbat bazterketa. Axolagabekeria da horren eragile handiena. Gurera bizi gara, besteez ahaztuta. Eta gure axolagabekeriak beste askoren ezina eta samina, gosea eta sufrimendua sortzen du. Gure ahalegin guztiak izan daitezela behartsuak lehenesteko eta denei laguntzeko. Gure eskuzabaltasunak egikaritu dezala bihotzeko sentipen on hori.



## **Jainkoaren herriaren otoitza**

Dei egiogun, senide maiteok, Jainko Aita ahalguztidunari eta eska diezaiogun datorrela bere herriari laguntzera:

- Eska diezaiogun Jaunari, Elizaren alde: biziarez dezala eta santu egin, gizakien ongarri eta Jainkoaren aintzagarri izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Eska diezaiogun Jaunari munduan agintea dutenen alde: beraien ardura behartsuenen onerako eta guztion ongizaterako bete dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Eska diezaiogun Jaunari Manos Unidas erakundean edo erakundearekin batera lanean diharduten guztien alde, Jesusen maitasuna nabarmen erakuts dezaten inguruko guztiak ulertzeko moduan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Eska diezaiogun Jaunari hemen bilduak gaudenon alde: gure bekatuak barka ditzan, bere argia eman diezagun eta bere Semearen aitormen egiteko sendo gaitzan. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Jauna, gure otoitzak eta egizu, Elizan jakinduria iturri eta bizi eredutzat entzuten den hitzak, lagun diezagula gure senideak ulertzen eta maitatzen, elkarren epaile ez, baizik eta onginahiaren eta bakearen zerbitzari izan gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## **Diru-bilketa egitean**

Egitera goazen diru-bilketa, “Manos Unidas” erakundearen proiektuekin bat egiteko izango da. Pobreziaren aurkako ahalegin honetan saia gaitezen guztiok eskuzabal izanez.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Oi Jainko, Zugandik hartu ditugu dohain hauek eta, guk eskainirik, gu guztion zerbitzuaren seinaletzat onartzen dituzu; egizu, gure merezimendutzat hartzen duzun eskaintza honek ekar diezagula betiko saria. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Zure dohain salbagarriak harturik, apalik eskatzen dugu, Jauna, zure errukia, orain janaritzat sakramentu hau ematen diguzun bezala, zeure bihotz onez betiko biziaren jabe egin gaitzazula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.



